

## Kutxabankek % 85eraino hazi du Norbolsan duen partaidetza

**2023ko martxoaren 13an.** Kutxabankek Norbolsan duen partaidetza % **85eraino** igo du, Abanca Corporación Bancariari balore-artekaritza eta balio erantsi handiko finantza-zerbitzuetan espezializatutako euskal sozietate honetan zuen kapitalaren %5 erosi ondoren.

Erosketa honen bidez, Kutxabank Taldeak Norbolsarekin **espezializatutako unitate** moduan duen konpromisoa berresten du, enpresei kapital-merkatuetan finantza eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzeko.

Operazioaren ondoren, orain Kutxabankek Norbolsaren kapital sozialaren % 85 du, gainerako akziodunak Kataluniako Caja de Ingenieros kreditu kooperatiba (% 10) eta Laboral Kutxa (% 5) dira.

### Norbolsa 2022an

Finantza merkatuentzat zaila izan den urtean, Kutxabank Taldeko balore konpainiak **bilakaera positiboa** izan du jarduera-lerro guztietan.

Jarduera-zifra **nabarmen handituta** amaitu du urtea Norbolsak, bitartekaritza-bolumena % **8,6** hazi baita, zaintzapean dauden aktiboak % **7,6** eta bere horretan mantendu da zorro instituzionalen kudeaketa-aginduen bolumena.

Horrela, bere jarduera-eremuko enpresen eta erakundeen artean lidergoa sendotu du, errenta finkoko lehen merkatuetan **1.600 milioi** eurotik gorako eskaria jasota. Norbolsa 27 jaulkitzaile pribatu baino gehiagorekin lankidetzan aritu da epe laburreko eta epe luzeko errenta finkoko programetan, **7.500 milioi** eurotik gorako zenbatekoarekin.

Berriki, koordinatzaile global aritu da Euskal Autonomia Erkidegoko **zor jasangarriaren zazpigarren jaulkipen** arrakastatsuan, 700 milioi euroko zenbatekoarekin eginikoa eta guztira 5.000 milioi euro baino gehiagoko eskaria lortu duena.

GJH-ei atxikitako konpainia da Norbolsa, eta bere lehentasunetako bat finantza-aktiboen jaulkipenean eta zorroen kudeaketan **jasangarritasuneko erreferente** izatea da.